

MALERREKAKO
HERRIETAKO
ESKOLAK



Saldias, Beintza-Labaien, Ituren,
Legasa, Narbarte eta Sunbilla

MALERREKAKO HERRIETAKO ESKOLAK
BIZIKIDETZA ERREGLAMENDUA

1. Sarrera

Elkarren ondoan bizitzen irakastea eta ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, hezkuntzaren helburu funtsezkoenetako bat izateaz gainera, egungo hezkuntza sistemen eginkizun nagusietako bat da. Ikaskuntza hori baliotsua da berez, eta ezinbestekoa, gizarte demokratikoa, solidarioa, kohesionatua, kritikoa eta baketsua sendotu nahi badugu.

2. Oinarrizko araudia

47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbarrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.

Dekretuaren egitura

KAPITULUA	ARTIKULUA	
I. XEDAPEN OROKORRAK	1	Xedea eta aplikazio-esparrua
	2	Oinarrizko printzipioak
II. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	3	Ikasleen eskubideen eta betebeharren printzipio orokorrak
	4	Ikasleen eskubideak
	5	Ikasleen betebeharrak
III. IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZARI BURUZKO ARAUAK	6	Bizikidetza-plana
	7	Prebentzio-neurriak
	8	Bitartekotza, hezteko tresna eta gatazkak konpontzeko metodo
	9	Bizikidetzarako konpromisoak
	10	Bizikidetza-araudia
IV. BIZIKIDETZA NAHASTEN DUTEN JOKAERAK ZUZENTZEKO PRINTZIPIO OROKORRAK	11	Zuzendu daitezkeen jokaerak
	12	Neurriak hartzeko irizpideak
	13	Egindako kalteak konpontzea
V. BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	14	Bizikidetzaren kontrako jokaerak
	15	Bizikidetzaren kontrako jokaerak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak
	16	Bizikidetzaren kontrako jokaerak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura
VI. BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTEN JOKAERAK ETA HEZKUNTZA-ARLOKO NEURRIAK HARTZEA	17	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak
	18	Aringarriak eta larrigarriak
	19	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak daudenean hartu beharreko hezkuntza-arloko neurriak

	20 21 22 23 24	Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokaerak daudenean hezkuntza-arloko neurriak hartzeko prozedura arrunta Alegazioak aurkezten direnean prozedura arruntarekin jarraitzea eta prozedura ebaztea Erreklamazioak Prozedura hitzartua Dokumentazioa artxibatzea eta erregistroko oharpenak deuseztatzea
VII. FAMILIEK SEME-ALABEN HEZKUNTZA-PROZESUAN PARTE HARTZEA ESKOLAKO ESPARRUAN	25 26 27	Familien parte-hartzea eta konpromisoa Gurasoen edo legezko ordezkarien eskubideak Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizunak
XEDAPEN GEHIGARRIAK	1 2 3 4 5 6 7	Eskola Kontseiluaren eginkizunak delegatzea Eskolara ez joatea eta azken ebaluazioa DBHko 3. mailatik aurrera eskolara ez joateko eskubidea Erantzukizun soziala Erantzukizun penala Erantzukizun zibila Matrikula indargabetzea
XEDAPEN IRAGANKORRAK		Prozedurak ebaztea
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK		Araudia indargabetzea
AZKEN XEDAPENAK	1 2 3	Araudiaren garapena Bizikidetzeta-planak Indarrean sartzea

204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.

Foru Aginduaren egitura

KAPITULUA	ARTIKULUA	
I. XEDAPEN OROKORRAK	1 2 3	Xedea. Aplikazio eremua. Helburuak
II. BIZIKIDETZA KOORDINATZEKO PLANA	4 5 6 7 8	Bizikidetza koordinatzeko organoak. Ikastetxeko bizikidetza batzordea. Osaera eta eginkizunak Ikastetxeko bizikidetzaren arduraduna. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko bizikidetza eremua. Hezkuntza Departamentuaren bizikidetzarako aholkularitza. Osaera eta eginkizunak.
III. BIZIKIDETZA PLANA	9 10 11 12 13 14 15 16 17 18	Printzipio orokorrak. Bizikidetza planaren helburuak. Bizikidetza planaren edukiak. Bizikidetza planaren urteko zehaztapena eta memoria. Bizikidetzarako erregelamendua. Elkarren arteko bizikidetza planak. Zer egin eskolako jazarpenaren kasuen aurrean. Zer egin genero-indarkeriaren aurreko egoeretan, hezkuntza eremuan. Zer egin ikastetxean zerbitzua ematen duten langileen aurkako indarkeria egoeretan. Zer egin adingabeak indarkeria egoerak eta tratu txarrak jasotzen dituztenean edo eskolatu gabe daudenean.
IV. BITARTEKOTZA, GATAZKAK KONPONTZEKO HEZKUNTZA PROZESUA, ETA BIZIKIDETZARAKO KONPROMISOAK.	19 20 21 22 23 24	Hezkuntza arloko bitartekotza. Bitartekotzaren printzipioak. Bitartekotzaren prozesua eta ondorioak. Bitartekarien prestakuntza. Bitartekotza programa ezartzea. Bizikidetzarako konpromisoak.
XEDAPEN GEHIGARRIAK	1 ^a 2 ^a	Ikastetxeetako eta Nafarroako Foru Komunitateko bizikidetzaren egoerari buruzko azterlanak eta ebaluazioak. Irakasleen prestakuntza.
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK	Ba	Indargabetzea

3. Ikasleen eskubide eta eginbeharren printzipio orokorrak

1. Ikasle guztiek eskubide eta eginbehar berberak dituzte. Ezberdintasun bakarrak adinaren araberako zehaztapen batzuk izanen dira.
2. Eskolatze aldian, ikaslea bere eginbeharrez arduratuko da, erantzukizunez, eta bere eskubideak ezagutu eta erabiltzeko orduan, beste pertsonak errespetatu beharko ditu.
3. Espainiako Konstituzioan eta Nafarroako Foru Dekretu Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1 982 Lege Organikoan ezarritako balio eta printzipioetan hezteko, ikasleek arau horiek ezagutzeko eskubidea eta errespetatzeko beharra dute.
4. Eskubide bat erabiltzeak, banaka edo taldeka, berarekin dakar besteen eskubideak errespetatu beharra.
5. Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta eskola elkarteko gainerako kideek bermatu behar dute eskubide eta eginbehar horiek testuinguru egokian erabiltzen direla

4. Ikasleen eskubideak

47/2010 Foru Dekretuaren 4. artikuluan zehazten diren eskubideak:

- a. Funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan eta elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea.
- b. Osoko prestakuntza jasotzeko eskubidea, bere nortasuna erabat garatzen laguntzen duena.
- c. Errespetatua izateko eskubidea. Ikasleek eskubidea dute beren nortasuna, osotasuna eta duintasun pertsonala errespetatua izateko, baita beren kontzientzia askatasuna eta beren sinesmen erlijioso eta moralak ere, eskubide horiek Nazio Batuen Biltzar Orokorrek 1948ko abenduaren 10ean hartutako 217 A (III) Ebazpenaren bidez onartu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan aitortuak baitaude.
- d. Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratuak izateko eskubidea dute.
- e. Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea. Ikasle guztiek ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, dela banaka dela taldeka, ikastetxeak ezartzen dituen baldintzetan.
- f. Denek aukera berdinak edukiz hezia izateko eta babes soziala izateko eskubidea. Ikasle guztiek babes sozialerako, aukera berdintasunerako eta hezkuntza eremuan sartzeko eskubidea dute, indarreko lege esparruaren barrenean.
- g. Ikasle guztiek beren osasuna babesteko eta sustatzeko eskubidea dute.
- h. Jasotzen den hezkuntzan, helburuen artean emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen eta aukeren berdintasuna sartzeko eskubidea

5. Ikasleen eginbeharrak

47/2010 Foru Dekretuaren 5. artikuluan zehazten diren eginbeharrak:

- a. Ikastea, ikasleen oinarrizko eginbearra baita.
- b. Irakasleen eta zuzendaritza taldearen hezkuntza lana eta agintea errespetatzea eta eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten beste eragile batzuen oharrei kasu egitea.
- c. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzen eta, ikasgelan eta ikastetxean, ikasketetarako giro egokia lortzen parte hartzea eta modu positiboan laguntzea.
- d. Pertsonak errespetatzea.
- e. Ikastetxera norberaren higiena zainduta joatea.
- f. Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoa eta eskola garraioetakoa.

6. Familien inplikazioa eta konpromisoa

Beren seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusiak diren aldetik, aitei, amei edo legezko ordezkariari dagokie behar diren neurriak hartzea, behar den laguntza eskatzea eta ikastetxeari laguntzea hezkuntza prozesua egoki joan dadin. Gainera, beren seme-alabak eskoletara eta programatzen diren jardueretara joatearen ardura izanzen dute, eta baliabide guztiak jarriko dituzte etxean estudiatu eta irakasleek bidaltzen dituzten etxeko lan guztiak egin ditzaten.

Bere seme-alabei buruzko informazioa (notak, etorrera, ...) eskuragai dute EDUCA programa informatikoan.

7. Elkarbizitza-arauak

Ikasleen eskubide eta betebeharrak zertzen dituzte.

Elkarbizitza arauak jarrerak erregulatzen laguntzen dute eta zehazki deskribatzen dituzte praktikan jarri beharreko ekintzak. Taldearen kohesioa, esfortzuen koordinazioa eta taldekako helburuak lortzen laguntzen dute.

Azken finean, Eskolaren helburu, betebeharrak eta Eskola Komunitatearen kide eta gauzekiko errespetua bermatzeko, denek bete beharreko aginduak, arauak, jokaera eta jarrera pautak dira elkarbizitza arauak.

Elkarbizitzarako ezinbertzekoak diren heinean, Eskola Komunitate osoak Eskola eta gelako arauak ezagutu behar ditu. Beraz, jakitera eman behar dira bai arauak bai egon daitezkeen zuzenketak. Lan horretan garrantzizkoa da tutorea eta irakats taldearen lana, irakasleen koordinazioa, eta eskolak familiekin duen harremana.

7.1. Eskolako arauak

Eskolako arau orokorrek eguneroko zereginak erregulatzen dituzte. Komunitate osoak onartu eta eskola eremu osoan nahita nahiez bete behar dira.

Ikasturte hasieran Eskola Komunitate osoari jakinaraziko zaizkio: irakasle eta ez irakasleei ikasturte hasierako bileretan, ikasleei tutoretzako lehenengo saioetan eta familiei ikasturte hasierako taldeko bileretan.

Irakasle eta ez irakasleek arauak betetzea zainduko dute. Edozein arau-hauste elkarbizitzaren aurkako portaeratzat hartuko da.

ESKOLARA ETORTZEA	
1. ARAUA	1. Klasera etortzea derrigorrezkoa da matrikulatuta dauden 6-12 urte bitarteko ikasle guztientzat, ikasle eta familien ardura izanik. Ez etorrerak justifikatu behar zaizkio tutoreari. 2. Irakasleek, bere ordutegia eta lan eginbeharrak betez ikasleriaren ardura hartuko dute. 3. Ez etortze eta beraien justifikazioen kontrola tutoreak egingen du.

PUNTUALTASUNA	
2. ARAUA	1. Puntualtasuna mantendu behar da bai hasieran, bai bukaeran.

ZENBAIT LEKUTAN EGOTEA	
3. ARAUA	1. Ikasleak ezin dute klase ordua baino lehenago eskolan sartu.

JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESLOLAZ KANPOKOAK	
4. ARAU	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskolaz kanpoko jardueretan ez da bertako materiala erabiliko eta irakasle edo monitorea ren ardura izanen da eskolako arauak betaraztea. 2. Legeak agintzen duen moduan eskolako instalazioak udala eta eskolaren baimenaz bakarrik erabiliko dira.

ESKOLAKO INSTALAZIO ETA MATERIALAREN ZAINKETA ESKOLA ORDUTAN	
5. ARAU	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskolako instalazioak eta materialak bertan bizikide den edozeinen erabilpenerako dira. Beraz, zainketa eta mantenu arduratsua Eskola Komunitatearen kide guztien betebeharra da. 2. Eskola Komunitatearen kide guztiak Eskola garbia eta ordenatua mantentzen ahaleginduko dira. 3. Doakotasun programan parte hartzen duten ikasleek ikasturte hasieran honen inguruan emandako jarraibideak beteko dituzte.

PORTAERA GARRAIOAN	
6. ARAU	<p>Eskolaren jarduerekin zerikusia duten joan-etorrietan ikasleek jarrera egokia edukiko dute, garraioaren funtzionamendua eta erabiltzaileen ongizatea bermatzeko. Honetarako bete beharrekoak hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ez eragotzi ibilgailuaren gidaritzza. 2. Ikasle, laguntzaile eta gidariaren arteko harremanak elkarrekiko errespetuan oinarrituko dira. 3. Geltokietan tenorez ailegatu. 4. Bidaian eserita egon eta dagonean segurtasun-uhala lotu. . 5. Ibilgailuetan ez bota ez paperik ez bertze hondakinik.

7.2. Gelako arauak

Gelako arauak gelako iragarki taulan jarriko dira. Ikasturte hasieran tutoreak familiari emanen dio arautegi honen berri neurri zuzentzaileekin batera.

Eskoletako gela guztietan nahitaez bete beharreko arau hauetaz gain, tutoreak edo irakasle taldeak proposatuta bertze batzuk ere gehitzen ahal dira gurasoen proposamenak kontutan hartuz.

Irakasle taldeak eta tutoreak gelako arauak betetzen direla zainduko dute. Irakasle bakoitzak gela txukun gelditzen dela konprobatuko du.

GELAKO ARAUAK	
ARAUAK	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gelan eseri tutoreak agindu bezala. Irakasle bakoitzak egokia ikusiz gero bere saioetan aldatetak egin ditzake. 2. Isilik egon, modu egokian jarri eta klaseak arretaz jarraitu. Ez oihukatu, ez solastu bertzeen gainetik eta klasearen martxa arrunta ez galerazi. 3. Irakasleak proposatutako lana egin, bere jarraibideak kontutan hartuz. 4. Pertsona guztiak errespetatzea. Eragozpenak ez sortzea, ez barregarri utzi, ez iraintzea, ez probokatzea, borrokatzea, ezta bertzeen gauzak bereganatzea ere. 5. Gela garbia mantendu eta modu egokian utzi (argiak, lehiak...).

	<p>6. Gelako material, altzariak eta instalazioak behar bezala erabili. Ez pintatu eta ez marratu altzariak eta instalazioak.</p> <p>7. Klasea jarraitzeko beharrezkoa den materiala ekarri .</p> <p>8. Komunak: Ahal den heinean klaseen aurretik edo ondotik erabilliko dira; txandaka eta modu egokian.</p>
--	--

7.3. Elkarbizitza arauak betetzeko orientabideak

Eskola eta Gelako arauetan ezartzen denaz gain, beste hauek ere kontutan hartuko dira:

- Ikasteko interesa eta esfortzua erakutsi.
- Pertsonak, ekipamendua eta instalazioak modu egokian tratatu.
- Ikasgelan lan giro egokia lortzen lagundu.
- Beti modu lasai eta baketsuan jokatu.
- Elkarbizitza arauak eremu guztietan bete.

7.4. Irakasleriarentzat funtzionamendu arauak

1 . - Etorrera

Ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen duen artikuluen arabera **225/1998 FDren 3. artikulua (94 NAO, 1998ko abuztuaren 7koa):**

- Irakasleek, ahalik eta lasterren, bere irakaslanean gertatzen den edozein hutsegite edo atzerapenaren berri emanen dio eskolari.
- Irakasleak behartuta daude hutsegitearen justifikagiriak zuzendariari aurkeztera, lehenbailehen, honek eskatu beharrik gabe.
- Aurreikusita dagoen hutsegite baten kasuan irakasleak zuzendaritzari jakinarazi behar dio. Aldi berean ikasleentzat lana utziko du.
- Aurreikusita ez dagoen hutsegite baten kasuan irakasleak, ahal bezain laster, ez etortzea edo atzerapena jakinaraziko du, ahal bada eskolara telefonoz deituta.
- Gaixotasun batak direnean, irakasleak, hurrengo egunean, bajaren parte Eskolara igorriko du, Zuzendaritza jakinaren gainean egoteko eta Giza Baliabide Zerbitzura behar bezala tramitatzeko.

2. Puntualtasuna

Irakasle orok bere lan ordutegia errespetatu eta zorrotz bete egin behar du, are gehiago ikasleak eskolan dauden bitartean irakasleen ardurapean daudela jakinda.

3. Ebaluaketa saioak

- Ebaluaketa saioetan talde batean inplikaturiko irakasle guztiak egon behar dute: tutorea, espezialistak, logopeda, PTa eta orientatzailea.
- Inplikaturiko irakasle bakoitzak idatziz ekarriko ditu bere ikasleei buruzko balorazioak nahiz eta gero aldatzeko aukera izango duen.
- Educa aplikazioan ezarritako irekiera eta itxiera datak errespetatuko dira.
- Talde bakoitzerako ezarritako denbora epeak errespetatuko dira. Eskola bakoitzak erabakiko ditu bereak talde eta ikasleen kopuruen arabera.

8. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak

8.1. Irakasleen eskubideak

- 1.- Guraso, ikasle eta gainerako pertsonalaren partetik tratatu duin eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea dugu.
- 2.- Norberari eta eskolari buruzko informazio zuzena, kasu bakoitzean dagokion arduradunaren bitartez, jasotzeko eskubidea dugu.
- 3.- Zuzendaritza lanetan, klaustroetan eta Eskola Kontseiluetan inizatiba hartu, iradokizun eta proposamenak ekarri zein arazoak planteatzeko eskubidea dugu irakasle oro.
- 4.- Guraso nahiz ikasleekin bilera formal zein ez formalak egiteko eskubidea dugu.
- 5.- Eskolan irakaskuntzarako dagoen baliabide material oro erabiltzeko eskubidea dugu.
- 6.- Ikerketa pedagogiko eta proiektuetan parte hartzeko eskubidea dugu, hala nola, proposamen berriak ekartzekoa.
- 7.- Legeak agindutako eskubide sindikaletaz baliatzeko zein berriak aldarrikatzeko eskubidea dugu.

8.2. Irakasleon betebeharrak

- 1.- Malerrekako Herrietako Eskoletako klaustrokide garen heinean, eskola saio, ebaluaketa saio, ziklo bilera, koordinazio bilera, klaustro zein zaintzetan asistentzia eta parte hartzea, jarrera aktiboa agertuz.
- 2.- Eskola hutsegiteak zuzendariari dagokion agiri ofizialez emandako epeetan justifikatu beharko dira.
- 3.- Eskola ordutegiak zehatz mehatz beteko dira sarrera eta irteera ordutegiari arreta berezia paratuz.

4.- Eskolako baliabideak ez dira afera pertsonaletarako erabiliko; telefonoa, fotokopiagailua, internet konexioak, material fungiblea,...

5.- Eskola eremuetan eta oro har, umeen aitzinean, ez erretzea.

6.- Ikasle bakoitzaren izakera, sinismen eta kultur jatorriaren arabera baloreak errespetatzea eta beti ere, hezkuntza ez diskriminatzailea ematea.

7.- Larrialdi edo istripuetan Osasun zentro, 112 edo legokion osasun zerbitzuarekin lehen bait lehen harremanetan paratzea hura beharrezkoa balitz, eta, modu guztietara, gurasoak jakinaren gainean ahalik eta lasterren jartzea.

8.- Malerrekako Herrietako Eskolen koordinazio eta antolamenduak sor ditzazkeen egoera eta beharren arabera – ordezkapenak bertze ikastetxeetan, zaintzak, laguntza bereziak, gela bakarreko eskoletako egoera bereziak,...- horiek betetzea dagokio 6 eskola hauetako irakasle orori.

9. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzeko irizpideak

1. Irakasle guztiek, ikasteko behar den eskolako giro ona erraztu behar dute, eta horregatik, ikastetxeak antolatutako hezkuntza jarduerak egiten diren bitartean, elkarbizitzaren aurkakoak diren ikasleen portaerei aurrea hartu behar diete, eta ikasleei ohartarazi eta portaera zuzendu.

2. Zuzendu beharreko portaeretan aplikatu beharreko neurri guztiak hezigarriak izanen dira. Neurri horiek, gainera, ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko dute, eta elkarbizitza hobetzea izanen dute helburu. Arazoak eta elkarbizitzarako portaera ezegokiak sortu baino lehen neurri zuzentzaile hauek lantzeko prozesua Elkarbizitza Batzordeak abiatuko du.

3. Neurri horiek aplikatuz gero, ikasle guztiek eta, bidezkoa denean, gurasoek edo legezko ordezkariak eskubidea izanen dute entzunak izateko eta beren burua defendatzeko.

9.1. Elkarbizitzaren aurkako portaerak

Aurrez zehaztutako neurriak eta arauak beteko ez balira, honen aurrean bete beharreko prozedura hau izanen da:

HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA ETA NEURRIEN ARDURADUNA
1. Tutoretza saioa bakarka eta/edo taldeka	Tutorea
2. Familiari jakinarazi eta neurriak eta konpromisoa adostea	Tutorea
3. Behar diren kasuetan hartutako neurriak klaustroari jakinaraztea	Tutorea

<p>4. Neurriak eta konpromisoa betetzen ez badira, Eskolako Elkarbizitza Batzordera igorriko da eta behar izanez gero Bizikidetza Talde aholkulariarengana (sei eskoletako zuzendariak, orientatzaileak eta koordinatzailea) joko da iradokizunak jasotzeko.</p>	<p>Eskolako Elkarbizitza Batzordea</p>
--	--

9.2 Eskoletako Elkarbizitza Batzordeak

Eskola guztietan eratuko da bizikidetza batzordea, Eskolako zuzendariak izendatuta. Oro har, honela osatuko da bizikidetza batzordea:

- Zuzendaria.
- Ikastetxeko orientatzailea.
- Gurasoen ordezkaria/k (kopuru osoaren arabera)

Halere, Bizikidetza Talde eragile bat egongo da sei eskoletarako. Ez da figura formal bat izango baizik eta talde aholkulari bat, beharren arabera eskola bakoitzean gerta daitezkeen kasuak beren batzordetara eraman baino lehenago bertan kontsultatu ahal izateko. Honen osaketa haxe izango da: sei eskoletako zuzendariak, orientatzailea eta taldeko koordinatzailea.

Bizikidetza batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Bizikidetza planari lotuak.

a.1) Bizikidetza plana diseinatu eta bere urteko zehaztapenak, urteko programazio orokorrean sartuko direnak, denen artean prestatzeko prozesuaz arduratzea.

a.2) Bizikidetza plana eta bere urteko zehaztapenak prestatzeko proposamenak jaso eta sortzea.

a.3) Bizikidetzaren egoera ezagutzeko aldi behineko azterlanak programatu, bultzatu eta burutzea, baita bizikidetza planaren urteko ebaluazioa ere eta behar diren hobekuntzak proposatzea.

a.4) Bizikidetza planaren aplikazioaren berri ematea hezkuntza komunitateari.

b) Bizikidetzarako erregelamenduari lotuak

b.1) Bizikidetzarako erregelamendua berrikusten laguntzea.

b.2) Bizikidetzarako erregelamendua ikastetxean aplikatzeko jarduketegi buruzko informazioa bilatu eta iradokizunak egitea, bidezkoa denean.

c) Prestakuntzari eta aholkularitzari lotuak.

c.1) Hezkuntza komunitateari aholku ematea bizikidetzaren arloan, eta prestakuntza jarduerak bultzatzea, bai irakasleentzat bai hezkuntza komunitatearen gainontzekoentzat, gai horretan.

c.2) Bizikidetzarako hezkuntza arlo eta irakasgaien curriculumean sar dadin proposatzea.

c.3) Zuzendaritzari aholku ematea erabakiak hartzeko orduan, bizikidetzaren kontrako jokabideen edo harentzat oso kaltegarriak direnen aurrean hezkuntza neurriak hartzeko.

d) Bitartekotzari lotuak.

d.1) Bitartekotza taldeak sortzea eta haien funtzionamenduaz arduratzea.

d.2) Bitartekotza formaleko prozesuak antolatzea, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.